

101E/2023 EBAZPENA, abenduaren 10ekoa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearena, zenbait enpresari, euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko 2023ko laguntzen deialdian, esleitu eta justifikatu ez dituzten laguntzak ez ordaintzea ebazten duena, eta bide batez esleitutako diru-kopuru horiek askatzea.

ERREFERENTZIA: **Espediente kodea: 0011-1491-2023-000000**

KUDEAKETA UNITATEA: Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua
Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua
Tel.:848 426054
Helbidea: Paulino Caballero, 13, 31002 Iruña
Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

ESPEDIENTEA

Prozedura.

Titularra: 1491- Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako sektore pribatuko enpresetan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko laguntzak.

Otsailaren 16ko 9E/2023 Foru Aginduen bidez, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko kontseilariak Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako sektore pribatuko enpresetan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko laguntzen deialdia eta haren oinarriak onetsi zituen.

Ondoren, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emandako ekainaren 14ko 41E/2023 Ebazpenaren bidez, laguntzen deialdia ebatzi zen.

Laguntzak justifikatzeko agiriak aurkezteko epea amaiturik, enpresa batzuk ez dute inongo dokumentaziorik aurkeztu, beraz, ez dute jasoko 2023rako esleitutako dirulaguntza

Euskararen Sustapen eta Planifikazio Zerbitzuak proposamena egin du entitate horiei esleitu zitzaizkien dirulaguntzak ez ordaintzeko, eta bide batez onetsitako diru-kopuru horiek askatzeko.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.1.d eta 44. artikuluek eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onetsi zituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuaren 3. eta 11. artikuluek ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Ondoko enpresei onetsitako laguntzak ez ordaintzea, euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko 2023ko laguntzen deialdian esleitutako laguntzak ez



justifikatzeagatik, eta bide batez esleitutako diru-kopuru horiek askatzea, osotara 9.583,71 euro, ondoko datu hauen arabera:

Espediente zenbakia	IFZ	Izena	Aurrekontuko Partida	Esleitutakoa askatu
0011-1491-2023-000007	B31022155	VIÑEDOS Y BODEGAS ALCONDE SL	G/B30002/B3200/4701/334100	2.450,20
0011-1491-2023-000007	B31022155	VIÑEDOS Y BODEGAS ALCONDE SL	G/B30002/B3200/7709/334100	681,48
0011-1491-2023-000017	B31607070	BODEGAS LEZAUN SL	G/B30002/B3200/4701/334100	4.925,00
0011-1491-2023-000017	B31607070	BODEGAS LEZAUN SL	G/B30002/B3200/7709/334100	454,32
0011-1491-2023-000020	B31219413	PLAZA INVERSIONES SL	G/B30002/B3200/7709/334100	1.072,71

2. Ebazpen hau jakinaraztea enpresa eskakatzailerei.

3. Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Iruñean, 2023ko abenduaren 10ean.

EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA
Javier Arakama Urtiaga

